

ΘΝΑΤΙΚΕ ΗΪΚΑ

·πολσικάρων·

INGO
XONAU?

BAÍ, İNGO
XUAU!



SARRERIA

“Ingo Xonau!” proiektua

“Ingo xonau!” proiektua Oñatin emakumien hika jaso eta berreskuraketako sortu zan. Izan be, andrazkuen hika galtzeko arriskuan dago gure herrixan: gaur egun hitzun gaztienak 50 urte ingurukuak dira. Ezer egitten ezpadogu, urte gutxixan desagertuko da. Gizonezkuen hikaren egoeria hobia da, baiña ezta itxafleruak botateko modukua be. Danok dakogu zer ikasixa, geure-geuria dan hizkera eder horri eusteko. Liburuxka honen helburua herriitar guztioi hikaren bi aldaerak ikasteko tresna bat eskainketia da: informaziño orokorra eta adizki nagusixak. Ikasketa on!

Gainbeheriaren arrazoi nagusixak

- 1-Euskeriaren desprestigiua, erderiaren aurrian (gerraosteko urtietan euskeria zapalduta, eta erderarako joera haundixa).
- 2-Baserriarren hizkuntzatzat hartzeia, eta baserriarrek gutxiestia.
- 3-Hizkera takarra eta errespetu gutxikua zala pentsaitia: ez fiña.
- 4-Errejistruaren beraren mugak: hika ezin xako edozeiñeri egin.

Etxe askotan etena egon da hikaren transmisiñuan (kaleko etxietan basarritan baiño dezente lehenago). Pentsaiten ebein etzala aproposa.



Mutillak zergatik mantenu daue eta neskak ez?

- 1-Neskak hika egittia oso gaizki ikusitta egon da. Emakumiak fiña eta esanekua izan bihar eben. Mutillak askatasun gehixago euki dau betik.
- 2-Hika mutillen kontu moduan ikusi da, eta guraso batzuek -beste askok ez- semiakin hika egitten jarraitu daue; alabakin, berriz, ez.
- 3-Etxian hika jaso eztauen mutil askok kalia ikasi daue, sozializaziño-eremuetan (gaur egun be hola da): tabernetan, soziedadetan, futbolian, ehiza-lagunakin, kuadrillakuakin...
- 4-Emakumiak puntura arte eztau euki mutillen moduko sozializaziño-eremurik. Hika eremu intimora mugatu da.

Ikuspegi aldaketia: eskerrak!

Hikaren gaiñeko ikuspegixa aldatu egin da. Orain baloraziñua positibua da: eztogu desprestigiuarekin lotzen. Gazte askondako “guay” da, identidade-marka bat. Mutillen artian modan dago. Nesken artian... orainddiok ez.



HIKA: LAGUNARTEKO TRATAMENDUA

Hiru tratamendu edo erregistro ebali dira Oñatin:

- 1-Berorika, galduta daguena: errespetuzkua (abariari, medikuari, etxe batzuetan gurasuairi eta aittajun-amandriari...).
- 2-Zuka, gehixen ebaltzen dana: egoera danetarako balixo dau.
- 3-Hika: lagunartekua, informala (Oñatin "hittato" be esaten xako).



Zer emuten dau hikak?

Bizittasuna, aberastasuna, konfiantzia, konplizidadia, hurreko sentittia, identidade-marka bat, lotura bat zuztarrakin, bardinttasunaren aldeko keiñu bat, gure hizkuntziaren ezagupidia, komunikaitteko beste baliabide bat...

Genero-markia, hikaren berezittasuna

Hittatoz edo hika gabiltzenian, mutillari ala neskiari zuzendu, aditz-formia ezta bardiña:

"Ingo xonau?" (Egingo xonagu) > emakumezkuari ('noka' esaten xaue batuan)

"Ingo xuau?" (Egingo xuagu) > gizonezkuari ('toka' esaten xaue)

Bardin da berbetan dabillena mutilla ala neskia dan. **Zeñeri zuzendu**, hori da inporta dauena: horrek baldintzatuko dau aditz-formia. Horri 'alokutibua' be esaten xako (alokutibua: zurekin berbetan daguena zein dan, aditzari marka bat edo bestia jartia).



Biren arteko tratua

Hika egittia biren arteko tratua da. Eztakogu mundu guztiarekin hika egin biharrik. Eta gizonezko edo emakumezko sentittien eztiranak be errespetaittia komeni da.

ERABILLERA-OHITTURAK

Zeiñekin bai eta zeñekin ez?

Zeiñeri egin geinkixo hika? Edozeiñeri etxako hika berba egin izan: bardiñen artian eta konfiantza-giruan bakarrik ebali izan da. Hori bai, gaurko egunian, gero eta salbuespen gehixago egitten dira. Hikaren biziraupenerako, tradiziñua aldatuaz doa.

Baiña komeni da jakittia tradiziñuak markautako erabillera-ohitturak zeintzuk izan diran:

EZ

1-Gurasuairi eta askoz nagusixaguak diranairi ez (orain badagoz, ikas-teko, gurasuari hika egitten dosten seme-alabak).

2-Ezegagunairi normalian ez (mutillen artian nahiko zabalduta dago).

3-Giro oso formaletan ez eta "estatus sozial" haundixagua dakoiñairi be ez. Adibidez, alkatiari, medikuari, abariari... (hau be gero eta gutxiago beteten da).

4-Umiari bai, baiña oso txikiñairi ez: koskortu artian ez.

5-Senar-emaztiak euren artian ez: ezkondu aurretik bai, baiña ostian ez (badagoz hika egitten daueiñak be).

6-Komunikabidietan, hitzaldixetan, jente aurrian... normalian ez.



BAI

1-Gurasuak eta nagusixak seme-alabairi eta gaztiari bai.

2-Anai-arreben artian bai.

3-Adinkidien artian eta gaztiaguairi bai, konfiantza apur bat baldin badago.

4-Lagunen artian bai, edade diferentzia egon arren (adibidez, lankidien artian).

5-Animalixairi bai (normalian toka).

6-Norbere buruari bai (1. personan danian normalian toka, emakumia izan arren: "Zoraketan ete ñabik?"; 2. personan danian, noka/toka: "Ze pentsaitten don/k, ba, hik?").

7-Hikalagunari bai (hau barrixa da, baiña ohitturia bihurtuko dogu!).

Gaur egungo erabillera okerrak:

-Neskairi mutillairi moduan egittia hika: "Ze xauk, ba?"

-Zu eta hi, bixak batera ebaltia. "Ze habil? Burutik sano zauz?"

-Hikako formak eztagokixonian ebaltia.

Adibidez, menpeko esaldixetan:

"xaukena xauk" famosua.



ADITZ GUZTI-GUZTIAK HIKA?

ZU-ren orde, beti HI

Hika gabiltzenian, bigarren persona ezta ZU, HI da:

Zu etorri zara > Hi etorri **haiz**

HI personiarekin, hikako aditz-formak ebaliko dittugu betik, baitta menpeko esaldixetan be:

Mendira fan ez **haizelako** damututa **hago**

1. eta 3. personetako adizkixak be hikako formetan esaten dira:

NI	Gaur berandu jaiki naun/k
HA	Mikel be etorriko don/k
GU	Egingo xonagu/xuagu?
HAREIK	Mutil hareik guri begira xabitzan/k

ZUEK betik da ZUEK. 2. personako pluralian eziñezkua da aditzak hika ifinttia.

EGON HA! IXILIK! ZUEK
ARTABURU BATZUK ZARAI!

?

Hi, DAUENA XAUK!

Menpeko esaldixetan, HI danian bakarrik

Bi esaldi alkarketan diranian, bat menpekua izaten da eta bestia nagusixa. Hika gabiltzenian, esaldi nagusiko aditza hikako forman ebaliko dogu betik (ZUEK ezpada). Menpeko esaldiko aditza, barriz, HI danian bakarrik ebalten da hikako forman.

NI Jaikitten **naunanian/naukenian**, tremendako gosia eukitten **xonat/xuat**
Jaikitten **naizenian**, tremendako gosia eukitten **xonat/xuat**

NIK Eztakit zer egin bihar **xonaten/xuaten** lan barik geraketan **banaun/k**
Eztakit zer egin bihar **doten** lan barik geraketan **banaun/k**

HA Gosia **xakonalako/xakokelako** etorri **don/k** hain aguro
Gosia **dakolako** etorri **don/k** hain aguro

GU Zoratuta **gatzanala/gatzakela** esan **xostan/k!**
Zoratuta **gauzela** esan **xostan/k!**

Gehixenetan samurra da jakittia aditza menpekua dan ala ez, akaberan markaren bat eukitten dauelako (-ELA, -ELAKO, -ENIAN, -ETIK, -N...), baiña ez betik.

HAREK Maddik egin **xonan/xuan** lanaren ordaiña jasoteko **xakon/k** onddiok.
Maddik egin **eben** lanaren ordaiña jasoteko **xakon/k** onddiok.

Baldintzetan, galderetan eta agindduetan bai

Herri batzuetan baldintzazko aditz-formetan ezta hikako formarik ebalten, baiña oñatieraz bai. Eztakigu betik hola izan dan ala ez, baiña gaur egun edadeko personak be hola ebalten daue:

BALDINTZIA

Etorten **badon/badok**, ondo pasauko **xon/xok**

Iguala pasaitten da galderetan, harridurazko esaldixetan eta agindduetan: leku batzuetan eztaue hikako formarik ebalten. Oñatin normalian bai:

GALDERIA
HARRIDURIA
AGINDDUA

Ze esan **xon/xok**? Etorriko **don/dok** afaittera?
Horreik mozolo haundi batzuk **dittun/dittuk**!
Hi, **guazan/guazak** etxera (Araotzen goazenan/k)

ZELA GARBİTTUKO
XONAU, BA, ERROPIA,
LABADORIA
EZ BAXABİN?

ETXAİXAT...
GARBITTUİK
ERREKAN!



Genero-marka bariko aditzak

Badagoz hikako forma batzuk mutillandako eta neskandako bardiñak diranak: haiz, habil, haut, hator, hoia, hago... genero-marka bariko aditzak dira. Bixendako balixo daue.

HATOR, HATOR, NESKA ETXERA,
GAZTAİÑA XİMELAK JATERA..



Hika gabitzela beste aditzetan neska/mutil bereizketia egitten danez, batzuek neskairi zuzendutakuan aditz honaik be markau egitten dittue. Emakumiari zuzendutako markia (-na-) jarten doste, genero-markia falta dalakuan:

Maitte **haut**, Amaia
Maitte **haunat**, Amaia

ADITZ-TAULAK: IRIZPIDIAK

Aditz nagusixak

Gehixen ebalten diran aditzak batu dittugu liburuxka honetan, ez danak. ZUEK personiarekin lotutako formak be ez dittugu sartu, ezin diralako hika esan. ZU, barriz, HI bihurtetan da.

Araozko hika vs beste auzotakuak

Araotz aldeko hika eta Oñatiko beste auzo batzuetakua ezta bardin-bardiña. Aditz batzuk bardin esaten dira, baiña beste batzuk ez. Kasu batzuetan aldia txikiña da: baxatozak > baxatozek. Beste batzuetan, haundixagua: gekiñan > gekixenan (A), zaozak > xazek (A)...

Auzo batetik bestera be aldaketak dagoz. Auzo bakar baten be ohikuak dira o/u aldaerak: zunan-zonan, xaok-xauk... Aditz batzuk 3-4 modu desbardiñetan jaso dittugu, eta ezin, ba, tauletan danak ifiñi!

Hi,
GURE ZAIN
XAZEN!

XAZEN?
IGARTEN DOK
ARAOZ-TARRA
HAIZELA!

Hauxe izan da irizpidia:

"Oñatiko" aditz-formia emutia, eta Araozko formak onduan ifinttia, parentesi artian, diferentia diranian (bokal bat bakarrik aldaketan danian ez: a/e, o/u, o/i).

Esan eta idatzi, diferente

Aditz-taula honein helburua ahozko erabilleria da. Horregatik, idatzizkotik ahozkoa asko aldaketan diran formak ahoz esaten diran moduan datoz tauletan: adibidez, ñagon > ñaun, gagoz > gauz, xagok > xauk...

Berba egitterazkuan jaten dittugun konsonantia eta silabak, barriz, parentesi artian ifiñi dittugu: di(r)a, xona(g)u, (di)ttun, (zi)txuan...

Hala be, kontuan euki bihar dogu berbak alkarketaruzkuan letra gehiago be jaten dittugula, eta hori eztago aditz-taulan jarterik.

Adibidez: Emungo donat/dostat > **emungonat/emungostat**
Egin egik > **iñik**
Egingo xonagu > **ingo xonau**
Ez + xaguan > **etxauan**
Ez + xakiñat > **etxakiñat**

"INGO XU"
"EGINGO XUAGU"
IDAIZTEN DOK HIK?

INIÑ BARRE, TA
IPURTZULOKO BAT
EMUNGONAT!



NOR

Orañaldixa

Naiz > na(u)n / na(u)k
 Za(r)a > haiz
 Da > don / dok
 Ga(r)a > gaittun / gaittuk
 Di(r)a > (di)ttun / (di)ttuk

Lehenaldixa

Ni(n)tzan > ni(n)tzonan / ni(n)tzuan
 Ziñan-Zintzan > hi(n)tzanan / hi(n)tzan
 Zan > zonan / zuan
 Giñan-Gi(n)tzan > gi(n)tzonan / gi(n)tzuan
 Zi(r)an > zittunan (ziuzanan*) / zittuan (ziuzan*)

* Araotzen

EDERKI ASPERTU
 NITZONAN
 AURREKUAN
 ZINIAN!

BESTE GAUZA
 BATZUTAN
 PENTSAITEN
 EGONGO HITZANAN
 TA!



NOR-NORI

(NOR: Ha/Hareik bardin)

Orañaldixa

Xat > xatan / xatak
 Xatzu > xan / xak
 Xako > xakon / xakok
 Xaku > xakun / xakuk
 Xate (**xakoi***) > xaten / xatek

Lehenaldixa

Xaten > xatanan / xatan
 Xatzun > xanan / xaken
 Xakon > xakonan / xakuan
 Xakun > xakunan / xakuan
 Xate(i)n (**xakoin***) > xatenen / xatian

* nahiko zabalduta dagoen forma okerra

ETORRI XAN
 HILLEROKO
 BISITTIA?



ETORRI XATAN, BAI!



NOR-NORK

Oraiñaldixa

NI

Na(i)zu > naun / nauk
Nau > naixon / naixok
Naue > naixonai / naixuai

HI

Zaut > haut
Zau > hau
Zau(gu) > hau(gu)
Zaue > haue

HA

Dot > xonat / xuat
Dozu > don / dok
Dau > xon / xok
Do(g)u > xona(g)u / xua(g)u
Daue > xonai / xuai

GU

Gaizu > gaun / gauk
Gau > gaixon / gaixok
Gauē > gaixonai / gaixuai

HAREIK

(Di)ttut > (di)txunat / (di)txuat
(Di)ttuzu > (d)ittun / (di)ttuk
(Di)ttu > (di)txun / (di)txuk
(Di)ttugu > (di)txunau / (di)txuau
(Di)ttue > (di)txunai / (di)txuai

Lehenaldixa

Nindduzun > ninddunan / nindduan
Nindduen > ninddunan / nindduan
Nindduein > ninddunain / nindduain

Zindduten (**notsun***) > hinddu(d)anan / hinddu(d)an
Zindduan > hinddunan / hindduan
Zinddugun > hinddugun / hinddugun
Zindduein > hinddunain / hindduein

Neben > ñonan-nixonan / ñuan-nixuan
Zeben > honan/ hian
Eben > xonan / xuan
Geben > giñonan-gixonan / giñuan-gixuan
Euen (ebein) > xonain / xuain

Gindduzun > ginddunan / gindduan
Gindduen > gaixunan (ginddunan*) / gaixuan (ginddunan*)
Gindduein > gaixunain (ginddunain*) /
gaixuain (gindduain*)

Nittuan > nitxunan / nitxuan
Zittuen > hittunan / hittuan
Zittuan > (zi)txunan / (zi)txuan
Gittuan > gitxunan / gitxuan
Zittuain > (zi)txunain / (zi)txuain



NOR-NORI-NORK (NOR: Ha/Hareik bardin)

Orainaldixa

NIK	
Dotsut > donat / dostat	Notsun > nonan (nistanan*) / nostan (nistan*)
Xat > txanat / txat	Notsan > nitxanan / nitxan
Dostet (xatei*) > xostenat / xostiat	Nosten (xatein*) > ñostenan / ñostian

HIK	
Dostazu > dostan / dostak	Nostazun > hostanan / hostan
Xatzu > xan / xak	Zotsan > hitxanan (hotzanan*) / hitxan (hotzan*)
Doskuzu > doskun / doskuk	Zoskun (oskuzun*) > hoskunan / hoskun
Dostezu > dosken / doskek	Zosten (ostezun*) > hoste(na)n / hostian

HAREK	
Dost > xostan / xostak	Nostan > xostanan / xostan
Dotsu > don / dosk	Otsun > onan / ostan
Xau > txan / txak	Otsan > txanan / txan
Dosku > xoskun / xoskuk	Oskun > xoskunan / xoskuan
Doste > xosten / xostek	Osten > xostenan / xostian

GUK	
Dotsu(gu) > donau / dostau	Gotsun > gonan-onagun (gistanan*) / gostan-ostagun (gistan*)
Xau > txanau / txau(gu)	Gotsan > gitxanan / gitxan
Dosteu > xostenau / xostiau	Gosten > g(iñ)ostenan / g(iñ)ostian

HAREIK	
Dostai > xostanai / xostai	Nostain > xostanain / xostain
Dotsue > donai / dostai	Otsuen > onain / ostain
Xaue > txanai / txai	Otsain > txanain / txain
Doskue > xoskunai / xoskuai	Oskuein > xoskunain / xoskuain
Dostei > xostenai / xostiai	Ostein > xostenain / xostein

Lehenaldixa



EUKI

Oraĩnaldixa

Dakot > xakonat / xakuat
Dako(t)zu > dakon / dakok
Dako > xakon / xakok
Dak(og)u > xakona(g)u / xakua(g)u
Dakoi > xakonai / xakuai

Lehenaldixa

Neukan > ñakonan / ñakuan
Zeukan > heukanan / heukan
Eukan > xakonan / xakuan
Geukan > giñakonan / giñakuan
Eukain > xakonain / xakuain



ETORRI

Oraĩnaldixa

Nator > ñaton / ñatok
Zatoz > hator
Dator > xaton / xatok
Gatoz > gatozan / gatozak
Datoz > xatozan / xatozak

Lehenaldixa

Netorren > ñatonan / ñatorran
Zetozen > hatorranan / hatorren
Etorren > xetonan / xetorran
Getozen > getozanan / getozan
Etozen > xetozanan / xetozan



IBILLI

Orainaldixa

Nabil > ñabiñ / ñabik
 Zabi(l)tz > habil
 Dabil > xabiñ / xabik
 Gabi(l)tz > gabi(l)tzan / gabi(l)tzak
 Dabi(l)tz > xabi(l)tzan / xabi(l)tzak

Lehenaldixa

Nebillen > ñabiñan / ñabillan
 Zebiltzen > hebill(en)an / hebillan
 Ebillen > xabiñan / xabillan
 Gebi(l)tzen > gebiltzanan / gebiltzan
 Ebi(l)tzen > xabiltzanan / xabiltzan

ZE XABIK HORI,
 HAÏNBESTE ZARATAKIN?

ETXIÂN OBRETAN
 XABI TZAN

EGON

Orainaldixa

Nau > ñaun / ñauk
 Zauz > hau
 Dau > xaun / xauk
 Gauz > gaozan (gazen*) /
 gaozak (gazek*)
 Dauz > xaozan (xazen*) /
 xaozak (xazek*)

Lehenaldixa

Neuen > ña(g)onan (ningunan*) / ña(g)uan
 Zeuzen > he(ng)onan / he(ng)uen
 E(g)uen > xa(g)onan / xa(g)uan
 Geo(nt)zen > geo(nt)zanan /
 geontzan
 Euzen > xauzanan / xauzan (xeuzian*)

* Araotzen

ZUEK FUTBOLA IKUSTEN? ETXAONAN
 BESTE EZER, ALA?

ASPERTUTA GEOZANAN
 PELIKULA TXAR BAT IKUSTEN

FAN

Oraiñaldixa

Noia > ñoian (noixien) / ñoiak (noixiek)
Zoiak > hoia
Doia > xoian / xoiak
Goiaz > goia(t)zan / goia(t)zak
Doiaz > xoia(t)zan / xoia(t)zak

Lehenaldixa

Niñoian > nixoianan / nixoian
Ziñoiazan > hiñoia(na)n / hiñoian
Xoian > zixoianan / zixoian
Giñoiazan > gixoiazanan / gixoiazan
Oiazan > zixoiazanan / zixoizan

JAKIN

Oraiñaldixa

Dakitt > xakiñat / xakixat
Daki(t)zu > dakiñ / dakik
Daki > xakiñ / xakik
Dakigu > xakiñau / xakixau
Dakixe > xakiñai / xakixai

Lehenaldixa

Nekixen > ñakiñan / ñakixan
Zekixen > hekiñan / hekixan
Ekixen > xakiñan / xakixan
Gekixen > ge(ñe)kiñan (gekixenan*) / ge(ñe)kixan
Ekixein > xakiñain / xakixain

* Araotzen

MENDIRA GOIAZAN!



HI BALDIN BAHÓIA,
NEU BE BAÑOIAN!



HÍK BADA KÍK MIKEL
NOÍZ DATORREN?



ETXAKIXAT...
GUK ETXAKIXAU EZER



EBALI (ERABILI)

Oraiñaldixa

Dabitt > xabiñat / xabillat
Dabi(t)zu > dabiñ / dabik
Da(ra)bil > xabiñ / xabik
Dabigu > xabiña(g)u / xabilla(g)u
Dabixe > xabiñai / xabillai

Lehenaldixa

Nebillan > ñabiñan / ñabillan
Zebillan > hebillan
Ebillen > xabiñan / xabillan
Gebillan > gebiñaan / gebillaan
Ebillein > xabiñain / xabillain



ZE DABIÑ
ESKUARTIAN?

ERAKUSKETA BAT
ORGANIZAITTIA
XABILLAT BURUAN...

BESTE ADITZ BATZUK

BALDINTZA eta ONDORIXUA

NOR

Baldintzia

Banintz(a) > banintzun / banintzuk
Baziña-bazi(n)tza > bahintz(a)
Balitz(a) > balitzun / balitzuk
Bagiña-bagi(n)tza > bagintzun(an) / bagintzuk
Balira > balittuzan / balittuzak

Ondorixua

Ni(n)tzake > ni(n)tzuken / ni(n)tzukek
Ziñake-zintzake > hi(n)tzake
Litzake > litzuken / litzukek
Giñake-gintzake > gintzuken(an) / gintzukek
Li(r)ake > littuken/ littukek

ABERATSA BANITZUN,
ENITZUKEN HEMEN
EGONGO!



EGIXA, KARI BEN
EGONGO
GINTZUKEN!



AHALERIA

NOR eta NOR-NORK

(NOR: Ha/Hareik bardin)

Oraiñaldixa/ hipotetikua

Ne(i)ke > ñe(i)ken / ñe(i)kek
Ze(i)ke > he(i)ke
Le(i)ke > lle(i)ken / lle(i)kek
Ge(i)ke > ge(i)ken / ge(i)kek
Le(i)kiei > lle(i)kienai / lle(i)kiei

Lehenaldixa

Ne(i)kien > ñe(i)kenan / ñe(i)kian
Ze(i)nkien > he(i)kenan / he(i)kian
Ze(i)ken > xe(i)kenan / xe(i)kian
Ge(i)kien > ge(i)kenan / ge(i)kian
Ze(i)kiein > xe(i)keñain / xe(i)kiein

GUSTORA
EGINGO ÑEKEN
BIAJE HORI!

IÑ HEIKE, GURA
BADOK!



AGINDDUERIA

NOR

Hi zintzua izan

ha(d)i

NOR-NORK (NOR: Ha/Hareik bardin)

Hik ni etxera eruan

na(g)iñ / na(g)ik

Hik ha etxera eruan

e(g)iñ / e(g)ik

Hik gu etxera eruan

ga(g)izan / ga(g)izak

Hik hareik etxera eruan

e(g)iñ / e(g)ik

NOR-NORI-NORK (NOR: sing/pl. bardin)

Hik neri ogixa/k emun

e(g)idan / e(g)idak

Hik hari ogixa/k emun

e(g)ixon / e(g)ixok

Hik guri ogixa/k emun

e(g)igun / e(g)iguk

Hik hareiri ogixa/k emun

e(g)ixen / e(g)ixek

IÑIDAN KASO, ETA
EGON HAI IXILIK
PUSKA BATIAN!



AURKIBIDIA

SARRERIA

Ingo Xonau! proiektua	2
Gainbeheriaren arrazoi nagusixak	2
Mutillak zergatik mantenu daue eta neskak ez?	3
Ikuspegi aldaketia: eskerrak!	3

HIKA: LAGUNARTEKO TRATAMENDUA

Hiru tratamendu edo erregistro ebali dira Oñatin	4
Zer emuten dau hikak?	4
Genero-markia: hikaren berezittasuna	5
Biren arteko tratua	5

ERABILLERA-OHITTURAK

Zeiñekin bai eta zeñekin ez?	6
Gaur egungo erabillera okerrak	7

ADITZ GUZTI-GUZTIAK HIKA?

ZU-ren ordeztetik HI	8
Menpeko esaldixetan, HI danian bakarrik	9
Baldintzetan, galderetan eta aginduetan bai	10
Genero-marka bariko aditzak	11

ADITZ-TAULAK:IRIZPIDIAK

Aditz nagusixak	12
Araozko hika vs beste auzotakuak	12
Esan eta idatzi diferente	13

Aditz-laguntzailliak

NOR	14
NOR-NORI	15
NOR-NORK	16
NOR-NORI-NORK	18

Aditz trinkuak

EUKI	20
ETORRI	21
IBILLI	22
EGON	23
FAN	24
JAKIN	25
EBALI	26

Beste aditz batzuk

Baldintzia-ondorixua	27
Ahaleria	28
Aginddueria	29



Testua: Idoia Etxeberria
Diseinua eta ilustrazioak: Mirari Sagarzazu
Aholkularitza: Roberto Altuna
Egilea: Badihardugu Euskara Elkarte

BIDEUAK IKUSTEKO,
SARTU HAI
WEBGUNIAN!



SARTUKO NAUN,
BAI!

<https://ahotsak.eus/proiektuak/onatiko-noka-ingo-xonau/>



INGO
XONAU!



OÑATI
dabilen herria

Badihardugu
Debe barreko Euzkara Akztia